


Hasiera / Bizigiro

'STREAMING' PLATAFORMAK. EUSKARA. ENRIC MARIN I OTTO. CCMAKO LEHENDAKARI OHIA

«Eskumenik gabe, ezin da negoziatu multinazionalekin»

Ikus-entzunezkoetan sortzen ari den egoeran, eskumen banaketaren ondorioz, Hego Euskal Herrian euskara Espainiaren eskuetan dagoela dio Marinek, eta eskema «etnozida» duela.



ALBERT SALAME LLOP

Jon Ordoñez Garmendia - 2019ko irailak 22

Facebook Twitter Comments 0

Streaming plataformek ataka berri batean jarri dute euskara, horietan ere beste batzuk baitira hizkuntza hegemonikoak. Enric Marinentzat (Bartzelona, 1955), afera honetan erabat politikoa da hizkuntzaren gaia: telekomunikazio eskumenak izan behar dira konpainia handiekin negoziatzeko. Ezkerraberririk urriaren 4an antolatu dituen jardunaldietan emango duen hitzaldiaren lerro nagusiak aurreratu dizkio BERRIARI.

Jardunaldiek diote erronka baten aurrean daudela hegemonikoak ez diren hizkuntzak. Erronka, aukera, oztopo... zer da?

Nik esango nuke erronka bat dela, baina, estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumen banaketaren ondorioz, oso egoera prekarioan gaudela erronka horrek aurrean jartzen dizkigun gaiei modu positiboan heltzeko.

Zer gai dira horiek, zehazki?

Aldaketa teknologikoa eta ikus-entzunezkoen arloan ikusleak edukiekin duen harremana.

Egoera txarra da?

Publikoki gaiaz eztabaidatzen denean uste den baino larriagoa.

Zergatik?

Batetik, zerbitzu publikoa bermatzeko erregulazioak berehala geratzen direlako zaharkituta, informazioaren eta komunikazioaren teknologien eboluzio azkarraren ondorioz. Bestetik, audientziek edukiekin duten harremana funtsean aldatu delako eta eskaintzaren edukiontzia handiak estatuak paktatzen duten multinazionalak direlako, ez azpiko beste egiturekin.

Eta azkenik, Espainiako gobernuak historikoki jarrera jakobinoa izan dutelako, hala PSOEk nola PPK.

Nola eragiten dute?

Telekomunikazioetan, oinarriko eskumenak estatuarenak dira, eta horrek esan nahi du estatuak arautzen duela espazio erradioelektrikoa. Erregulazioak baliatuz, Espainiako gobernuak geroz eta baldintza txarragoak sortzen dituzte euskal kulturaren edo kultura katalanaren zabalkunde normalizatuarentzat. Trantsizioaren ostean, telebista oreka bat zegoen katalanezko eta gaztelerazko eskaintzan: Espainiako korporazioak bere edukiak gazteleraz ematen zituen, eta Kataluniakoak, katalanez.

Baina geroko erregulazioek desoreka handia eragin dute, estatuak ez dituelako baliatu eskura zituen klausulak edukiak katalanez edo euskaraz eskaintzera behartzeko. Hala, telebista pribatuaren, LTDaren eta kable operadorearen erregulazioekin, katalanezko eskaintza baztertuta geratu da: %50etik %3ra pasatu da.

Eta orain?

Europar merkatu digital bakarra definitzen ari da, eta horrek eskaintza orokor bat zabalduko du. Baina guk ezin dugu ezer negoziatu. Soilik espazio erradioelektrikoaren kudeaketaren eskumenak baditugu arautu ahal izango dugu modu egokian Kataluniak eta Euskadik, ez dadin izan bazterrekoa katalanaren eta euskararen presentzia.

Lehentasuneko da telekomunikazioetan eskumenak izateko borroka egitea.

Bestela, zer gertatuko da?

Estatuak ez ditu bere egiten euskal kulturaren edo kultura katalanaren aldarrikapenak; autonomia erkidegoen esku uzten ditu, jakinda ez dutela eskumenik ezer egiteko. Eta, horrela, ematen du ez dela ezer egiten ari, baina bere helburua betetzen ari da; ez du gazteleraren aldeko politika proaktiborik egin behar. Eskema etnozida bat da.

Errealia da pentsatzea Euskal Herriak eta Kataluniak multinazionalekin zuzenean negoziatzeko aukera izan dezaketela?

Egoeraren jakitun izan behar dugu, eta telekomunikazioen eskumenak lehen lerroan jarri. Bestela, ez Jaurlaritzak eta ez Generalitateak ezingo dute negoziatu Googlerekin, Netflixekin edo Movistarrekin. Estatu baten autoritatea ez baduzu, ezin da egin. Gehienera, harreman atsegina izango dute, eta zerbaiten itzaropena izan.

Konpainia horiek zenbaterainoko sentsibilitatea dute hegemonikoak ez diren hizkuntzekin?

Arazoa da gehienek Madrilen dutela egoitza, baita Portugalera ere. Eta hortik kudeatzen dute. Eta zuzendariak Madrilen bizi dira, edo madrildarrak dira, eta Espainiako pentsaera dute. Zergatik gastatuko dute dirua filmak itzultzeko inork ez baditu behartzen? Jatorrak garelako?

Ekoizpenean, ordea, badute eragina. Handia-ren aurrekontuaren zati bat bete zuen Netflixek.

Bai, nik ez dut esaten aukera berriak ez dakartzatenik, baina ezinbestekoa da gertatzen denaren kontzientzia erreala izatea.

Telebista publikoak non geratzen dira honetan guztian?

Eskema berri honetan balio dutenak edukiak dira. Eta ezinbestekoa da irrti-telebista korporazio publiko indartsuak izatea, eta horiek aurrekontu egokiak izatea eta edukiak ekoiztea. Eduki-sortzaile bazara, aliantzak egin ditzakezu, eta modu horretan tamaina txiki eta ertaineko telebista nazionalen aliantza bat sortu ahal izango genuke Europar, indarrak batu, koproduzioak egin eta elkarrekin negoziatzeko. Horrelako estrategietan pentsatu behar dugu. Baina, lehenenik eta behin, politikariek horren guztiaren kontzientzia hartu behar dute.

Ez dute kontzientzia hori?

Ez. Kataluniako prozesuan guztiaz hitz egin da kulturaz izan ezik.

Eta gizarteak?

Gizarte mugimenduek ere horren kontzientzia hartu behar dute gobernuak laguntzeko eta behartzeko dagokien ardura har dezaten. Baina garbi dut Espainiak ez dituela telekomunikazioaren arloan eskumenak aise emango. Sakratua da eurentzat hori.

Filmin.cat-en gisako plataforma bat izan liteke irtenbide bat?

Hori da. Telekomunikazioen arloan eskumenak izan bitartean, irudimentsuak izan behar dugu. Sistemak eskaintzen dituen arrakala guztiak baliatu behar ditugu, eta uste dut ez garela hori egiten ari. Esango nuke ez dugula arazoaren ikuspegi globala eta, beraz, ez diogula behar bezala erantzuten. Aukera guztiak aztertzen hasten garenean, sortuko dira irtenbideak.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAREN etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke. Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi BERRIAko zuzendaria

Izan zaitetz BERRIALaguna

Gehien irakurriak

- «Kosta egiten zaigu hizkuntza eskubideen urraketa salatzea» ION ORZAIZ
- Klima larrialdiari erantzuteko neurriak exijitu dituzte milaka ikasleek kalean GARIKOITZ GOIKOETXEA
- Gipuzkoako Diputazioak «ez du gustuko» Zaldunbordako saltoki handiaren proiektua HODEI IRURETAGOIENA
- Belaunaldi arteko Hertzainak INIGO ASTIZ
- Urdaibaik bost fitxaketa egin ditu datorren denboraldirako, eta Zierbenak, hiru AITOR MANTEROLA



Iruzkinak Komunitatea

Saioa hasi

Gomendatu Berrietik hasita

Hasi eztabaida..

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN

Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Pribatutasuna DISQUS